

## Imana aurkitu, haztatu; objektuak imandu

### Hiztegia

iman

imandu

iparrorratz

lur-globo

polistireno

### Ohar orokorra

Imana gauza harrigarria da, haurren eta berdin jende helduen izpirituan. Ez da ikasgelan imanaren esplikazio eta ezaugarri zehatzetan sartu behar, baizik eta imanaren fenomeno bilatu, egun guzietako egoera arruntenetan.

Haurrek etxetik ekarriko dituzte beren inguruan aurkitzen dituzten gauza imanduak (aizturak, nonahi eros daitezkeen eta molde ezberdinetako imanak, adibidez ate hesteko erabiltzen direnak... ).

Denak batean edo taldeka entseatuko gara fenomenoaren haztatzerara : imanaren ezaugarriei interesatuko gara.

Bi iman hurbiltzen direnean zer fenomeno sortzen den ere ikusiko dugu.

Ikasiko dugu metalezko gauza zenbait imantzen ahal direla, erran nahi baita beren aldi iman bilakatzen. Nola egin eta zer material balia? Adibidez, imana esku batean eta orratz bestean, biak elkarren kontra torratuko ditugu zenbait minutuz.

## Jarduera

Lau galde hauen inguruan jarduerak antolatuko dira :

- 1 Imana zer da? Imanduak diren objektuen bilketa egin ikasgelan.
- 2 Imanak objektu guziak bereganatzen ditu? Zein? Imanak duen ezaugarri nagusiari interesatuko gara : beste objektu metalikoen bereganatzeko gaitasuna du.
- 3 Eta imana imanari hurbiltzean, zer agitzen da?
- 4 Nola egin orratz baten imantzeko?

## Ororen buru zer?

Haurrek egin dituzten jarduerak eta informazio bilketen laburpenak beren kaierean idatziko eta ilustratuko dituzte.